

LB_2_AGPT_PROGRAMAZIO LABURPENA

Irakaslea | Yanira Etxabari Lopez | Maila | 2. Batxilergoa | Ikasturtea | 21/22

IKASGAIAREN EZAUGARRIAK MAILA HONETAN

[Kontingentzia Plana](#)

[Arreta ez-Prezentzialaren Plana.](#)

Adierazpen Grafiko-plastikoko Teknikak irakasgaiaren helburua da ikasleek ezagutu eta aplikatzen jakitea artistek historian zehar erabili dituzten eta oraindik ere erabiltzen ari diren baliabideak, teknikak, metodoak eta aplikazio instrumentalak.

Irakasgaiak gaitasunak garatzeko aukera ere ematen du, bereziki kultur adierazpena eta kontzientzia; izan ere, ikasleek sakonago ikasiko dute eta ulertuko nola garatu diren, historian zehar, artistek garai bakoitzeko bizipenak arte lanetan islatu ahal izateko prozesuak eta teknikak. Halaber, irakasgaiak ikasten ikasteko gaitasuna garatzen lagunduko die ikasleei, zeren eta, irakasgai teoriko-praktikoa izanik, aukera ematen baitie beren ezagutzak hobetzeko artisten lanen behaketaren bidez eta beraiek egiten dituzten lanekin konparatuz.

Marrazketaren, pinturaren eta grabatuaren arloko teknika grafiko-plastiko tradizionalak eta berriagoak diren beste teknika misto eta alternatibo batzuk zehatz ezagutzeak ikasleei gaitasuna ematen die beren ideiak adierazi eta garatzeko, eta horiek teknikoki egokiak diren lan grafikoak sortuz agertzeko, ahalik eta modurik egokienean. Ezagutzatik abiatuta, ikasleek komunikatu egiten dute; beren irudiak sortuz material desberdinekin saiakuntzak egiten dituzte, beren helburuetarako egokiak diren konponbideak bilatuz.

Sormen gaitasunen garapenak ikasleei aukera emanen die arte grafikoaren arloan abiatzeko, plastikaren munduan espiritu kritikoa garatuz. Gainera, berenganatzen dituzten ezagutzen bidez askoz sakonago estimatuko dute ondare artistikoaren balioa eta, beraz, ondare horrekiko errespetu jarrerak sustatuko dira.

OINARRIZKO GAITASUNAK

UNITATEAK

1) Hizkuntza komunikazioa.	6										
2) Matematika gaitasuna eta zientzia eta teknologiko oinarrizko gaitasunak.											
3) Gaitasun digitala.	4	5									
4) Ikasten ikastea	1	2	3	4	5	6	7				
5) Gaitasun sozial eta zibikoak.	4	5									
6) Ekimena eta ekintzailletza.	4	5									
7) Kontzientzia eta adierazpen kulturalak.	1	2	3	4	5	6	7				

ETAPAKO HELBURU OROKORRAK

Batxilergoa: <https://bon.navarra.es/eu/iragarkia/-/texto/2015/127/1>

EDUKIAK

[BATX CURRICULUMA](#)

(ikasgai bakoitzari dagokion curriculumaren zatia estekan)

1. MULTZOA.–MATERIALAK
2. MULTZOA.–MARRAZKETAKO TEKNIKAK
4. MULTZOA.–GRABATU ETA ESTANPAZIO TEKNIKAK
5. MULTZOA.–TEKNIKA MISTOAK ETA ALTERNATIBOAK

Ikasgaiaren diseinua ilustrazioa erabiliko du gaien arteko konektore moduan, Iturrama Solidario proiektuaren barruan egongo dira, honetan, ipuin bat ilustratu behar dute (aurten testu aldaketa egitea aurreikusita dago). Bestetik, ipuinen formatua, arrunta eta kamishibaia izango da. Kamishibaiei kasuan Kabiak erakundearekin elkarlanean, hemen kamishibaia inprimatu egiten dira eta saharako liburutegietara eramaten dira.

EBALUAZIO IRIZPIDEAK eta ESTANDAR EBALUAGARRIAK

BATX CURRICULUMA

UNITATEAK ETA DENBORALIZAZIOA

1. Ebaluazioa		2. Ebaluazioa		3. Ebaluazioa	
Orduak	Unitateak	Orduak	Unitateak	Orduak	Unitateak
14	1-HIZKUNTZA GRAFIKO-PLASTIKOEN ERAGILE MORFOLOGIKOAK: Forma, kolorea, ehundura.	12	4-MARRAZTEKO TEKNIKAK	20	6-GRABATUA ETA ESTANPAZIOA: Punta lehorra
8	2-TEKNIKAK ETA IKUS-ESTRATEGIAK. Konposizioaren erlazioa teknika grafiko-plastikoekin.	16	5-MARGOTZEKO TEKNIKAK	6	7-TEKNIKA GRAFIKO PLASTIKOAK ETA ARTE ESTILOAK
3	3-KOLOREA ADIERAZPEN BALIABIDEA BEZALA.				
			4/5 I-turrama solidario proiektuan parte hartuko dugu ilustrazio lan bat eginez.		

METODOLOGIA ETA BALIABIDEAK

- Metodologia aktiboa: ikasleen esperientzian oinarritua, ikasleak izan behar dira beren ikaste-prozesuaren protagonistak, teknika grafiko-plastikoei dagozkienak, euskarriak, materialak, tresnak eta prozeduren saiakuntzak eginez eta horietan trebetasuna lortuz.
- **Metodologia parte hartzailea:** Talde lanetan IKKI egiturak erabiliko ditugu eta talde osoko eztabaidetan parte hartuzera bultzatuko zaie.
- **Metodologia ikertzailea:** Ikasleak adierazpen grafiko-plastikoen hainbat teknika behatzeko eta ikertzeko testuinguruetan sartzen dira, ezaguerak eta trebetasunak bereganatzeko.

EBALUAZIOA ETA ERREKUPERAZIOA

- Ebaluazioa gainditzeko ezinbestekoa da lan guztiak egitea eta ematea. Lan bakoitzak emateko epe bat izanen du. **Beranduago emateak notaren jeitsiera** ekarriko du. Egun bat beranduago puntu bat gutxiago, hortik aurrera gehienez 5.
- Ebaluazio bakoitzean azterketa teoriko-praktiko bat eginen duzue. Azterketa honetan 3,5 edo gutxiagoko nota ateratzen baduzue, ez dut ariketekin batez bestekoa eginen eta ebaluazioko nota suspentsoa izanen da. Halaber, ariketa guztiak ematen ez badituzue, suspentso.
- Azterketak ez badituzue gainditzen edo beren batez bestekoa gutxiegi denean, **azterketa globala** ere egin beharko duzue.
- Ikasgaia gainditzeko gutxienez saioen %80etara etorri behar duzue. Honetarako ez dugu bereiztuko hutsegite justifikatu (justifikazio ofizialak izan ezik) eta ez justifikatuen artean.
- **Kurtsoa gainditzeko lan guztiak eginda eta emanda izan behar dira.**
- **Jarrera ona suposatzen zaie**, baina horrela ez bada %10eko notaren jaitsiera ekarri dezake. Jarreraren barnean, jokaera baikorra, irakaslearen azalpenen aurrean arreta edukitzea, etengabeko garapena, ardura, lana (denborarik ez galtzea), materiala, puntualtasuna, garbitasuna, bertzeekiko begirunea...

KALIFIKAZIO SISTEMA eta TRESNAK

Nota jartzeko tresnak ondoko hauek izanen dira:

- **Gelan egindako ariketak: Sormenezko irudiak eta ariketa gidatuak.**
- **Azterketa teorikoak.**
- **Jarrera: Eztabaidetan parte hartzea, euskararen erabilpena, materiala zaintzea, garbitasuna...** Ariketa bakoitza paratutako baldintzen arabera ebaluatuko dugu. Ikasleak ariketa egin baino lehenago jakin behar du zein den ariketaren helburua.

KALIFIKAZIO IRIZPIDEAK

Lan praktikoak % 90 Azterketak % 10

ZUZENKETA IRIZPIDEAK ETA GUTXIENEOAK

Borobiltzea:

Ebaluazioko nota jartzeko, borobiltze matematiko arrunta erabiliko da:

- Lehen hamartarra 1, 2, 3 edo 4 bada: unitatea bere horretan mantentzen da.
- Lehen hamartarra 5, 6, 7, 8 edo 9 bada: unitateari 1 gehitzen zaio. Arau hau ez da aplikatuko 4,5-5 tartean, hau da, gaitzeko baldintza 5era iristea da.

Ikasturte bukaerako nota kalkulatzeko, ebaluazio bakoitzeko borobildu gabeko notarekin kalkulatu da, eta ondoren aurreko borobiltze irizpidea erabiliko da.

ERREKUPERAZIO SISTEMA

- Ikasgaia errekeratatzeko gutxiegiaren zergatiari begiratuko diogu. Lanen bat falta bada, epe batean eman beharko duzue; gaitdu gabeko ebaluazioko azterketa gutxiagia bada, errekeratu beharko duzue. Ebaluazioa gaititzen ez duzuenen lanen bat ez emateagatik, hurrengo ebaluazioan errekeratatzeko ematen den epean eman beharko duzue eta bere notarik altuena 5 izanen da. Epea bukatu ondoren ez da onartuko eta beste lan bat egin beharko duzue errekeratatzeko. Lan hauek azterketa unean emanen dizkiozue irakasleari.
- Maiatzeko eta ekaineko probak: azterketa egiteaz aparte, kurtsoko lan guztiak ere aurkeztu, azterketa egunean, irakasleari eskutan entregatu behar dizkiozue lan hauek.

Ez Ohiko deialdian, ikasleren batek hiru ebaluazioen batezbestekoan ez badu 5 edo gehiago lortzen, suspendituriko ebaluazioak berreskuratu beharko ditu. Berreskurapena suspentsoaren arabera izanen da, pertsonalizatua. Behin berreskuratuta, beheko taulan agertzen den moduan, lortutako nota berri honekin (hauekin) hiru ebaluazioen noten batezbestekoa eginez, kalkulatu da azken nota. Lortutako kalifikazioa

Berreskurapenaren emaitza	Azken emaitza
8.5 - 10	7
7 - 8.5	6
5 - 7	5
0 - 5	Berreskurapenaren emaitza borobildua (4 eta 5 artean, 4)

